

KOD.: A113

SOZIOLOGIA

**LEHEN ARIKETA
BIGARREN PROBA**

*Denbora, gehienez: 120 minutu
Galderak: 120.*

EREDUA:	D
---------	----------

Ez ireki esan arte.

Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredia.

Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.

Gogoan izan:

Asmatuak: 1,00

Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.

Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.

Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.

Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.

Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

1. Hauek osatzen dute Udalaren administrazio-antolakuntza:
 - a. Sailak, sozietate publikoak, erakunde autonomoak eta zuzendaritza-organismoak
 - b. Gobernu Batzarra eta Udalbatza
 - c. Kontratazio Mahaia
 - d. Partaidetza-organismoak: Elkarguneak, Auzoguneak eta Gizarte Kontseilua

2. Hauxe da Gasteizko Udaleko Azterlan Atala hobekien definitzen duen zeregina:
 - a. Sailen edo erakundeen arteko planak egitea
 - b. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Planean aintzat hartutako beste estatistika-organo batzuekin koordinatzea
 - c. Udal-interesa duten hiri-errealitate eta -alderdien analisiak egitea
 - d. Udalak egiten edo kontratatzen dituen azterlanak zuzendu eta koordinatzea

3. Udalaren webgunean dagoen “Ikerlan eta estatistikak” edukiko “Ikerketak gaika” atala bederatzi gaitan antolatzen da. Hauetako zein EZ dago horien artean?
 - a. Mugikortasuna eta joan-etorriak
 - b. Biztanleria.
 - c. Hezkuntza
 - d. Biltzarrak eta Turismoa

4. Honako hauek osatzen dute Gasteizko udalerrria (adierazi erantzun zuzena):
 - a. Hirigunea eta auzoak
 - b. Hiriguneak eta udal-mugartean barreiatutako eremu bereziak, hiri-lurzoruan, nekazaritza eremuari dagozkion ezaugarri bereziak dituztenak
 - c. Hirigunea eta udalerrria bat eta bera dira Gasteizen
 - d. Udala, kontzeju edo administrazio-batzarrak, eta Gasteizko hauteskunde-batzordea

5. Gasteizko udalerrrian menpeko toki-erakundeak (adierazi erantzun zuzena):
 - a. Nortasun juridiko propioa dute, jarduteko gaitasuna eta erabateko autonomia
 - b. Independentek dira udal gobernuko organoekiko
 - c. Foru arauen arabera gobernatzen dira
 - d. Aurreko guztiak

6. Gasteiz hautesbarruti bakarra da hauteskunde-mota honetan (adierazi erantzun zuzena):
 - a. Europako Parlamenturako hauteskundeak
 - b. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak
 - c. Udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak
 - d. Menpeko toki-erakundeetako Administrazio Batzarretarako hauteskundeak

7. Nork EZIN DU botorik eman 2019ko udal hauteskundeetan?
 - a. Adinez nagusiak diren Espainiako nazionalitateko pertsonak, baldin eta Euskadiko edozein udalerritan bizi badira
 - b. Adinez nagusiak diren eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonak, baldin eta Europar Batasuneko edozein herrialdetan bizi badira
 - c. Adinez nagusiak diren, eta atzerrian jaio arren Espainiako nazionalitatea duten pertsonak, baldin eta Euskadiko edozein udalerritan bizi badira
 - d. Espainiako nazionalitatea dutelarik, atzerrian iraunkorki bizi diren pertsonak

8. Nork EMAN DEZAKE botoa Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskundeetan?
 - a. Adinez nagusiak diren eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonak, baldin eta Euskadiko edozein udalerritan bizi badira
 - b. Adinez nagusiak diren eta Espainiako nazionalitatea dutelarik, atzerrian iraunkorki bizi diren pertsonak
 - c. Adinez nagusiak diren eta Espainiako nazionalitatea duten pertsonak, baldin eta kasuan kasuko hautesbarrutiko udalerriren batean bizi badira
 - d. Adinez nagusiak diren eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonak, baldin eta Europar Batasuneko edozein herrialdetan bizi badira

9. Informazio-iturri hauen artetik zein EZ dator udal-erregistroetatik?
- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga
 - Enplegu-bilatzaileak
 - Ekonomia-Jardueren gaineko Zerga
 - Udalaren kirol instalazio eta gizarte etxeetako abonatuak
10. Biztanleen udal erroldako zein aldagai baliatu daitezke estatistikoki?
- Sexua, adina, jaiolekua, bizilekua, nazionalitatea
 - Sexua, adina, egoera zibila, jaiolekua, nazionalitatea
 - Izen-abizenak, helbidea, familia-mota
 - Nortasun Agiri Nazionala, edo, atzerritarren kasuan, hura ordeztzen duen agiria
11. Biztanleen Udal Errolda erregistro administratibo bat da, eta bertan adierazten dira:
- Udalerrria ohiko bizileku duten bizilagun guztiak
 - Udalerrrian jaiotako pertsonak eta egoitza-baimena indarrean duten jatorri atzerritarreko pertsonak
 - Espainiako edo atzerriko nazionalitatea izanik, udalerrian jaio diren pertsona guztiak
 - Udalerrrian etxebizitza duten pertsona guztiak
12. Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 2. artikulua tresna hauek ezartzen ditu lurralde-antolamendurako:
- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)
 - Lurralde Plan Partzialak (LPP)
 - Lurralde Plan Sektorialak (LPS)
 - Aurreko hirurak
13. Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 11. artikulua arabera, Lurralde Plan Partzialak (LPP) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) garatzen dituzte EAE banatzen den Eremu Funtzionalan. LAGetan, nola deitzen da Gasteiz dagoen Eremu Funtzionala?
- Arabako Lautada
 - Araba Erdialdea
 - EAE-Hegoaldea
 - Gasteizko Kuadrilla
14. Hirigintza-antolamenduko zein tresnari buruzkoa da definizio hau? “Arau juridiko bat da, zeinek arautzen baititu lurzorua erabilerak eta eraikigarritasunak, eta gauzatu daitezkeen erabilera eta jarduerak zehazten —non eta zenbat—. Horrenbestez, zuzeneko eragin ekonomikoak ditu udalerraren garapenean”.
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra
 - Lurralde Plan Sektoriala
 - Barne Erreformatarako Plan Berezia
 - Antolamendu Xehatuko Plana
15. Tresna hauetako zein baliatzen da hiri lurzoru finkatua —herri edo hiri bezala ezagutzen dugun horretan— esku hartzeko, aspaldi eraikita dagoen arren, eraldatu nahi den horretan?
- HAPOn Barne Erreformatarako Plan Berezia (BEPB)
 - Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO)
 - AUZOGUNE edo lurralde-kontseiluak arautzen dituen araua.
 - HAPOn lurzorua birsailkapena
16. Nola definitzen du Gasteizko Udalaren indarreko HAPOk “lurzati” kontzeptua?
- Kalifikazio global eta lur-mota berberarekin kalifikatuta eta sailkatuta dagoen lur-azalera
 - Kalifikazio zehatua eta lur-mota berbera dituen lur-azalera
 - Unitate fisiko eta prediala osatzen duen eta Jabetzaren Erregistroan finka bereizi gisa inskribatzeko baldintza guztiak dituen lur-eremua da
 - Hiri-lurzoru eraikigarria

17. Nola definitzen du Gasteizko Udalaren indarreko HAPOk “Gentrifikazio” kontzeptua?
- Lurzoru motaren aldaketa bat da: hiri-lurzoru izatetik lurzoru urbanizaezin izatera, hiri-lurzoruen berezko erabilerak kenduaz, berriz ere eraldatu gabea izan dadin, lurzoru naturala
 - Lurzoru motaren aldaketa bat da: lurzoru urbanizagarri izatetik hiri-lurzoru izatera, horretarako baliatuta zenbait sistema, esaterako desjabetze edo lankidetzeta, hitzarmena edo eragile urbanizatzailea
 - Hirigintza planen bitartez hiriko auzo edo zona bat zaharberitu nahi denean, bertako biztanleek zenbait gasturi aurre egitera behartuta daude. Hori posible ez dutenean, euren jabegokoa saldu eta hiriko beste zona batera alde egin behar izaten dute Hori gertatzen da, esate baterako, hirigune historikoen berritze turistikoa egiterakoan
 - Lurzorua birprogramatzea edo, hala badagokio, desprogramatzea, lurzoru horretarako urbanizazio-obrak eta eraikuntza-lanak egiteko epeak aldatuta
18. Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoak (EUROSTAT) sortu zuen Estatistikako Lurralde Unitateen Nomenklatura (NUTS), Europako eskualdeetako estatistikei uniformetasuna emateko. Espainiako Estatuan, zein administrazio-unitateri dagokio NUTS-3 maila?
- Probintziak, uharte-kontseiluak eta kabildoak
 - Erkidego eta hiri autonomoak
 - Udalerriak
 - Probintziako hiriburuak
19. Honela sailkatzen da lurzoru hiri planeamenduan:
- Hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarria, lurzoru urbanizaezina
 - Bizitegirako lurzoru, ekoizpen jardueretarako lurzoru, sistema orokorretarako lurzoru
 - Eremuak, sektoreak, lursailak
 - Lurzoru eraikigarria eta lurzoru ez eraikigarria
20. Hiri kapitalaren menpeko salgaia bihurtzeak jendeak hiriaren jabegoa galtzea eragin zuen. Fenomeno horren aurrean, egile batek “hiri izateko eskubidea” terminoa sortu zuen. Nork?
- Manuel Castells
 - Henri Lefebvre
 - David Harvey
 - Saskia Sassen
21. Hiri-diseinua genero-ikuspegitik ebaluatzerakoan, ze gorabehera hartu behar dira kontuan?
- Garraio publikoa, berdeguneak, ekipamenduen eskuragarritasuna, segurtasuna bide publikoan
 - Eraikinen fatxaden diseinua
 - Oztopo arkitektonikoak
 - Beste hiri batzuekiko komunikazio-sarea
22. “*Hiri-espazioa ez da blokeen artean geratzen den soberakoa; alderantziz, eraikinak egon behar dute kale eta plazan diseinuaren menpe*”. Egile hauetako zein liburu edo kontzeptutan aldarrikatzen du kaleen garrantzia hiri-diseinuan?
- Ebenezer Howard: *Ciudades Jardín del mañana*
 - Le Corbusier: *La ciudad radiante*
 - Jane Jacobs: *Muerte y vida de las grandes ciudades*
 - Saskia Sassen: *La ciudad global*
23. Hiri-soziologiak hirietako populazio-metaketa aztertzen du, ikuspegi teoriko zein praktikotik. Hurrengo auzi hauetatik, zein du ikergai?
- Azken hamarkadetako hiri-hazkuntza
 - Hiri-planifikazioa eta etxebizitza
 - Herritarren parte-hartzea hiriak eraikitzekei prozesuetan
 - Aurreko guztiak

24. Esaldi hauetatik, zeinek definitzen du hobekien “*koropleta*” kontzeptua?
- Hauteskunde-barrutia Europako Ekialdeko herrialde batzuetan
 - Fluxu eta sareen errepresentazio kartografikoa
 - Balore estatistikoaren errepresentazio kartografikoa, koloreen bilbeen edo beste baliabideren baten kodifikatzearen bitartez
 - Dispersioaren neurri estatistikoa
25. Datu-base erlazionalen ari garelarik, zer da SQL?
- Datuen kalitatea ziurtatzeko sistema bat
 - Datu-baseak kontsultatzeko lengoia bat
 - Datu-baseak diseinatzeko sistema bat
 - Aurrekoetako bat ere ez
26. Informazio geografikoaren analisisian eta errepresentazioan, *isopleta* edo *isolinea* deitzen zaie funtzio jakin baterako balio konstante bera duten puntuak lotzen dituen kurbari. Zein aldagai motarako da egokia errepresentazio molde hori?
- Aske edo independentea
 - Ordinala
 - Jarraitu edo metrikoa
 - Kategorikoa
27. Geografia-Informazioko sistemak. Zer adierazi nahi du ETRS89 terminoak?
- Geografia-Informazioko Sistemen aplikazio informatiko komertzial bat da
 - Koordenatuen erreferentzia sistema bat da 2007tik aurrera Espainiako ofiziala da
 - Datu espazialen azpiegitura ofiziala da Espainian
 - Horrela deritzo fitxategi kartografiko bektorialen Europako estandarra
28. Zer da LurData?
- Informazio estatistikoa kontsultatzeko zerbitzua da, lurralde-zehaztasun handikoa, interfaze kartografiko baten bidez baliagarria
 - Zoruari eta etxebizitzari buruz informazio estatistikoa emateko zerbitzua da
 - Euskal Herriari buruzko datu estatistikoak bildu eta eskaintzen dituen behatokia da
 - Euskal Herriko Lehen Sektorari buruzko behatokia da
29. Zer nolako etxebizitza-motak jasotzen ditu EUSTATen azken Biztanleriaren eta Etxebizitzen zentsuak?
- Etxebizitza libreak eta babestuak
 - Babes Ofizialeko etxebizitzak, etxebizitza tasatuak eta etxebizitza libreak
 - Famili etxebizitzak eta establezimendu kolektiboak
 - Familia bakarreko etxeak eta etxebizitzak
30. EUSTATen Biztanleriaren eta Etxebizitzen azken zentsuak hiru famili etxebizitza mota bereizten ditu, erabileraren arabera. Zeintzuk dira?
- Nagusiak, bigarren mailakoak eta huts edo okupatu gabeak
 - Etxebizitza, bulegoa eta lokala
 - Jabetzakoa, alokairukoa eta lagatakoa
 - Banakakoa, kolektiboa eta konpartitua
31. UDALMAP udalerrri mailako informazio sistema bat da, zenbait politika publiko diseinatu eta ebaluatzeko helburuarekin sortua, hain zuzen ere hazkuntzaren eta lurraldearen garapenaren inguruko alor ugarian erabaki hartzeak erraztera bideratutako politika publikoak. Zer bi informazio-eremu eskaintzen ditu?
- Udalen diru-sarrerak eta gastuak
 - Demografia eta jardura ekonomikoa
 - Turismoa eta kultura
 - Iraunkortasunaren adierazleak eta ekipamenduak

32. Zein behar-mota nagusi jorratzen dira Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak osatzen duen Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestan?
- Erosketa, salmenta eta alokairua
 - Sarrera, aldaketa eta birgaitzea
 - Etxebizitza hutsekin eta etxegabetzeekin loturikoak
 - Irisgarritasuna, segurtasuna eta eraginkortasun energetikoa
33. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikitako sozietate publiko jakin baten xede nagusia babespeko etxebizitzak sustatzea da. Zein da?
- VIKESA
 - ALOKABIDE
 - LANBIDE
 - Ensanche 21 Zabalgunea, SA.
34. Jabetzako etxebizitza eskuratzeko herritarren ahalmena neurtzeko “ahalegin gordin” izeneko adierazlea erabiltzen ohi da. Nola kalkulatu da?
- Alokairuaren batez besteko errentaren portzentajea, familiako batez besteko ondarearekiko
 - Etxebizitzaren batez besteko prezioaren eta urteko batez besteko soldataren arteko zatidura
 - Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren eta batez besteko soldataren arteko zatidura
 - Etxebizitza librearen prezio-banaketa aldakortasun-koefizientea
35. “Soziologia ekintza sozialaren ulermen konprentsiboaz eta, horrenbestez, haren ibileraren eta ondorioen azalpen kausalez arduratzen den zientzia da”. Zein korrante soziologiko eta egileri dagokie goiko esaldia?
- Soziologia konprentsiboa. Max Weber
 - Elkarrekintza sinbolikoa. Herbert Blumer
 - Gizarte-gatazka. Karl Marx
 - Positibismoa. Émile Durkheim
36. Egile hauetatik zein lotuko zenuke Sistemen Teoriarekin, Soziologiaren eremuan?
- Max Weber
 - Talcott Parsons
 - Karl Marx
 - Zygmunt Bauman
37. Soziologiaren zein funtsezko elementu definitu zuen honela Émile Durkheimek: “jokatzeko, pentsatzeko eta sentitzeko moduak, gizabanakoaren kanpokoak, indar ezartzailea dutenak, zeinaren bitartez hari –gizabanakoari– gailentzen zaizkion”?
- Erakundeak
 - Anomia
 - Metodo soziologikoaren arauak
 - Egintza sozialak
38. Soziologia ondoko hau (adierazi erantzun zuzena) helburu duen zientzia da, metodologia eta tresna egokiak baliatuta :
- Gizartea eta hura osatzen duten taldeak deskribatzea
 - Gizarte-egiturak eta giza-taldeen arteko elkarmenpekotasunezko sarean zientifikoki aztertzea
 - Gizabanakoek gizartean duten portaera aztertzea
 - Gizarte-desberdintasunak aztertzea eta horiek errotik kentzeko bideak proposatzea
39. Identifika ezazu egilea bere lanarekin:
- Las élites del poder*, M. Weber
 - La imaginación sociológica*, C.Wright Mills
 - Vigilar y castigar*, K. Marx
 - Contribución a la crítica de la economía política*, J. Habermas

40. Zein lanetan agertzen dira “*habitus*”, “*eremu sozial*”, “*espazio*” eta “*klase sozial*” kontzeptuak?
- Teoría de la acción comunicativa*: Jürgen Habermas
 - El hombre unidimensional*: Herbert Marcuse
 - La distinción: criterios y bases sociales del gusto*: Pierre Bourdieu
 - La cultura del nuevo capitalismo*: Richard Sennett
41. Nork idatzi zuen *Vidas desperdiciadas. La modernidad y sus parias* (2005) liburua?
- Gøsta Esping-Andersen
 - Richard Sennett
 - Manuel Castells
 - Zygmunt Bauman
42. Honela definitzen du A. Giddensek Soziologia *En defensa de la Sociología* liburuan: “*Diziplina orokortzailea, batez ere gizarte modernoaren izaeraz eta dinamikaz arduratzen dena*”. Baieztapen hauetatik, zeinek jasotzen du egokien definizio hori?
- Soziologia zientzia funtsean enpiriko edo positibista da
 - Soziologia gizartearen zenbait alorretan espezializatutako zientzia da
 - Soziologia gatazka soziala aztertzen espezializatutako zientzia da
 - Soziologia gizarte modernoaren eta gizarte-aldaketaren gaineko zientzia enpiriko eta interpretatiboa da
43. Gizarte-aldaketa Materialismo dialektikoaren ikuspegitik, zein dira kapitalismoan gizarte-aldaketa sustatzen duten indarrak?
- Ideologia eta Estatua
 - Produkzio-indarren eta produkzio-harremanen arteko gatazka, eta klase antagonikoen artekoa
 - Burgesia eta langileria
 - Inperialismoaren aurkako masa-borroka
44. Gizarte-aldaketa Durkheimen arabera, zeintzuk dira gizarte-aldaketaren funtsezko indarrak?
- Lanaren banaketa
 - Masak
 - Kontzientzia publikoa eta elkartasun organikoa
 - Erlijioa
45. C.Wright Mills-en *La imaginación sociológica* Soziologiaren lan klasikoa da. Zein da bere tesi nagusia?
- Analisi soziologikoa eguneroko zereginei gertakari ezohikoei bezain besteko arreta eskaintzean datza
 - Irudimen soziologikoa buru-kualitatea da, funtsezkoa gizakiaren eta gizartearen, biografiaren eta historiaren, niaren eta munduaren arteko elkarreragina atzeman ahal izateko
 - Analisi soziologikoak irudimena baliatzen du gizarte modernoaren bilakaera ikertzeko
 - Etika protestantearen eta kapitalismoaren espiritua arteko harremana azaltzen du
46. Lan soziologiko hauetako batean jorratzen da klase-desparekotasuna, gizarte-gatazka gisa ulertuta:
- Clase, estatus, partido*: M. Weber
 - Teoría de Sistemas*: N. Luhmann
 - Manifestu komunista*: F. Engels
 - La división social del trabajo*: É. Durkheim
47. 60 eta 70eko hamarkadetan Latinoamerikan sortutako korrante zientifiko baten arabera, nazioen arteko harreman politiko eta ekonomiko desorekatuek eta tokiko eliteen atzerapenak garapen-eredu jakin baten agerpena baldintzatu zuten. Nola deitzen da teoria hori?
- Inperialismoaren teoria
 - Mundu-sistemaren teoria
 - Gizarte-aldaketaren teoria hirugarrenmundutarra
 - Dependentziaren teoria

48. Zein kontzepturi dagozkie bi definizio hauek? “Ekintza kolektiboko molde jakin bat, ez iraupen laburrekoa, non antolakuntza-maila handi edo txikiagoko talde batek erakundez kanpoko ekintzetara jotzen duen, aldaketa jakin batzuk eragin edo ekiditeko asmoz”, eta “Pertsona-talde iragankorra, aldizka printzipio, tesi edo interes-ordenamendu jakin bat defendatzeko asmoduna. Talde iragankorra den heinean, desagertu egiten da behin xedea lortzen duenean”.
- Gertakari soziala
 - Gizarte-mugimendua
 - Sindikatura
 - Interes-taldea
49. “Prekariatua aldi baterako edo lanaldi partzalean eta soldata urriekin diharduten soldatapekoen klase-sozial berri bat da, lan-abantailarik gabe eta gizarte-laguntzak eskatu beharrean daudenak”. Guy Standing. Gure ingurutik hartutako egoera hautatik zeini aplikatu dakioke kontzeptu hori?
- Euskadin, DSBEren titularren bosten baten kasuan laguntza lanaren osagarria da
 - Espanian 45 eta 55 urte bitarteko emakumeen 51,8k nahi baino seme-alaba gutxiago izan dituzte. *Ugalkortasunari buruzko inkesta, 2018 (INE)*
 - Euskadiko jarduera-tasa % 63,1ekoa da, aurreko hiruhilekoa baino do hamarreko txikiagoa. *Biztanleriari buruzko inkesta jarduerarekin lotuta. EUSTAT*
 - Hitzarmen bidezko soldata-igoera Euskadin 1,6koa izan da 2017an eta 1,1ekoa 2018an. *Lan ikuspegia. EUSTAT*
50. Gasteiz Estatuko eta nazioarteko Hiri Hezitzaileen sarearen kide, xede harturik HIRI HEZITZAILEEN KARTAn onetsitako printzipioak sustatzea, eta horien artean hauxe nabarmentzen da:
- Hiri hezitzaileerako eskubidea, pertsona guztiak hezkuntzarako duten funtsezko eskubidearen hedadura gisa.
 - Adinekoak eta langabetuak heztea, hezkuntza-sistema araututik kanpo
 - Biztanleen hezkuntza-maila ebaluatzeko tresnak osatzea
 - Hezitzaileak berdintasuna, bakea, lankidetzatza eta antzeko gaietan prestatzea
51. Euskal Herriko hezkuntza-sisteman, zein adin-tarte hartzen du derrigorrezko hezkuntzak?
- 3 eta 16 urte bitartekoa
 - 3 eta 12 urte bitartekoa
 - 6 eta 16 urte bitartekoa
 - Euskal Autonomia Erkidegoan ez da derrigorrezko hezkuntzarik
52. Pierre Bourdieu soziologo frantsesa erreferentzia handia da hezkuntzaren analisiaren alorrean. Esaldi hauetatik, zure ustean zein dagokio haren tesi garrantzitsuenetako bati?
- Hezkuntzaren gaur egungo arazoetako batzuk “ezinegon-sindromearen” ondorio dira, hots, denbora-xahuketa gogaikarritzat jotzen duen aldarte baten ondorio. Hartara, gure garaiek ezaugarri duten kontsumismoa ez da objektu-metaketa bitartez definitzen, objektu horiek gozatzeko denbora laburraren bitartez baizik
 - Irakaskuntza-sistemaren xede nagusia erreproduktzio kulturala da, eta azken horrena, berriz, erreproduktzio soziala, zein ulertzen baita klase eta gizarte-taldeen arteko indar-harremanen egituraren erreproduktzio gisa
 - Eskolak komunikazio-molde berriek zaharkituta uzten ari diren rol jakin batzuetan hezten eta eraikitzen du
 - Hezkuntza-erakundeak ez dira soilik gizakiek elkartzean sortutako errealitate *sui generis* bat. Horrez gain, eta nolabait esatearren, zibilizazioaren bermea ere badira, eta giza-aurrerabidearen giltza dute
53. Bourdieurekin batera, Basil Bernstein ere Hezkuntzaren Soziologia Berria deiturikoaren egile nabarmenenetako bat da. Kodeak definitzen ditu: berez eskuratzen diren esanahi-sistemak arautzen dituzten printzipio gidariak liriteke, zeinen arabera hautatzen eta integratzen diren jardunbideak. Bi kode mota bereizten ditu, murrizak eta landuak, eta harremanetan jartzen ditu kontzeptu horiek gizarte-estratifikazioarekin. Zein klasek erabiltzen ditu bereziki bi kode-mota horietako bakoitza?
- Kode murrizak “klase sortzaileari” dagozkie
 - Kode murrizak klase langileari dagozkie, eta landuak klase zuzendariari
 - Kode landuak luppenproletariotza edo azpiproletaritzako kideak ditu hartzaile, eta murrizak finantza-oligarquiarenak dira
 - Kode murrizak burgesiari dagozkie eta landuak proletariotzari

54. Erreproduzioaren teoriek botereari eta kultura-eredu nagusiak hezkuntzaren bitartez egitura soziala erreproduzitzeko moldeei erreparatzen diete, ia-ia modu eskusiboan. Aldiz, zein litzateke Erresistentziaren teorian ideia nagusia Hezkuntzaren Soziologiaren eremuan?
- Norberaren elementu psikologikoen eta jaiotzatiko ahalmenek gizarte-determinismoak gainditzea ahalbidetzen dute, hartara bide emanez goranzko mugikortasun gisa ulertzen den arrakasta eskolakoari eta sozialari
 - Gatazka ezaugarri duen hezkuntza-testuinguru batean, ikasketa-planek ez diete soilik menpekotasun-interesei laguntzen; horrez gain, emantzipazio-aukerak ematen dituzten alderdiak ere badituzte
 - Instrukzioaren osagarri kognitiboak ezin dira moraletatik bereizi, eta desberdintze graduala emaitza akademikoen arabera izango da. Prozesu horrek hierarkia akademiko batera bideratzen du, kalifikazioen bitartez, eta irizpide funtsezkoa da etorkizunean gizarte-estatusak esleitzeko
 - Hezkuntza instrumentala da, eta ekonomiaren menpekoa. Desberdintasun eta hierarkiak beharrezkoak dira funtzionalki, halako moduan non giza-baliabide funtsezkoak modu optimoan aprobetxatzen diren
55. Esaldi hauetatik, zein dagokio ugalkortasun orokorraren tasaren definizioari?
- Denbora-tarte jakin izandako haurdunaldien eta denbora-tarte berean ugaltzeko adinean dauden emakume-kopuruaren arteko zatidura
 - Denbora-tarte jakin izandako jaiotzen eta denbora-tarte berean ugaltzeko adinean dauden emakume-kopuruaren arteko zatidura
 - Denbora-tarte jakin izandako jaiotzen eta denbora-tarte berean 15 urtetik gorako biztanleen arteko zatidura
 - Data jakin batean ugaltzeko adinean dauden emakumeen eta data horretan bertan guztira dauden emakumeen arteko zatidura
56. Ugalkortasun-indize sintetikoak (adierazi erantzun zuzena):
- Emakume hipotetiko batek bere ugalkortasunaldia bukatzean izango lukeen ume-kopurua adierazten du
 - Denbora-tarte jakin batean emakumeek ugalkortasunaldian izandako jaiotzen kopurua adierazten du
 - Nahi izandako seme-alaben kopuruari jaiotako seme-alaben kopurua gehitzearen emaitza adierazten du
 - Denbora-tarte jakin batean izandako jaiotzen kopuruari heriotzen kopurua kentzearen emaitza adierazten du
57. Lurrean jakin bateko biztanleriaren hazkuntza begetatiboa (adierazi erantzun zuzena):
- Jaiotzen eta 5 urtetik beherako pertsonen heriotzen aldearen emaitza da
 - Lurrean jakin bateko mugimendu demografikoen emaitza da
 - Jaiotzen eta 64 urtetik gorako pertsonen heriotzen aldearen emaitza da
 - Bizirik jaiotako eta heriotzen aldearen emaitza da
58. Adin zehatz bateko belaunaldi bateko bizi-itxaropenak (adierazi erantzun zuzena):
- Adin zehatz horretako bizirik daudenei oraindik bizitzeko geratuko litzaizkiekeen urteen batez besteko kopurua adierazten du
 - Belaunaldi jakin bat biziko den batez besteko urte kopurua adierazten du
 - Belaunaldi jakin bat hiltzeko kanpo-arrazoirik gabe biziko den batez besteko urte kopurua adierazten du
 - Belaunaldi jakin bat gaixotasunik gabe biziko den batez besteko urte kopurua adierazten du
59. Emigrazio-tasa gordinak (adierazi erantzun zuzena):
- Urte jakin batean herrialde atzerritar batera joateko emigrazio bidezko alden kopurua adierazten du
 - Urte jakin batean jaiotako emigrazioen eta urte horretako batez besteko biztanleriaren arteko erlazioa adierazten du
 - Immigrazioen kopurua adierazten du, mila biztanleko
 - Migrazio bidezko alden eta bajearen arteko aldea adierazten du
60. EUSTATEk egiten dituen proiektzio demografikoak (adierazi erantzun zuzena):
- Testuinguru ekonomikoa aintzat hartuta eginiko etorkizuneko aurreikuspenak dira
 - Ugalkortasuna aintzat hartuta eginiko etorkizunerako aurreikuspenak dira
 - Eguneko biziraupen-indizea etorkizuneko belaunaldiei aplikatzearen emaitza da
 - Zenbait fenomeno demografikotan oinarrituta (hilkortasuna, ugalkortasuna eta migrazioak), eta zenbait hipotesi simulatuta, populazio jakin baten hazkuntza estrapolatzearen emaitza da

61. Demografiaren alorrean badira funtsezko bi magnitude, denbora-dimentsioarekin zerikusia dutenak: STOCKAK eta FLUXUAK. Adierazi FLUXUEI dagokien erantzuna:
- Berehalako denbora-dimentsioa dute. Une jakin bateko “izakinak” adierazten dituzte
 - Denboraren une jakin bateko populazioak dira
 - Demografiaren alorrean, gertakari edo fenomenoak (jaiotzak edo heriotzak, esaterako) adierazten dituzte
 - Biztanleriaren banaketa sexuaren eta adinaren arabera
62. Analisi demografikoaren alorrean lau zatidura-mota daude, zenbakitzailea eta izendatzailea osatzen duten magnitude-moten arabera: PROPORZIOA, RATIOA, TASA, PROBABILITATEA. Adierazi RATIOARI dagokion erantzuna:
- Zatidura hau azpimultzo jakin bat zati hura barne hartzen duen multzo osoa egitearen emaitza da
 - Zatidura hau elementu komunik ez duten bi multzo edo azpimultzo desberdin zatitzearen emaitza da
 - Zenbakitzailea gertakarien fluxua da, eta soilik izendatzailea da stocka
 - Zatidura hau denbora-tarte jakin batean izandako gertakari-kopuru bat (fluxu bat) zati denbora-tarte horretako batez besteko biztanleria egitearen emaitza da
63. Biztanleen Udal Errolda fitxategiaren ustiapen bat egin da, eta haren bidez populazioaren banaketa eskuratu da hiriko 31 auzoetako bakoitzean. BIZITOKIKO AUZOA aldagaiaren analisi estatistikoan, zentro-joerako zein neurri kalkulatu ditzakegu?
- Batezbestekoa
 - Mediana
 - Moda
 - Aurreko hirurak
64. Estatistikaren alorrean, maiztasun-taulak aldagaiaren balio bakoitza zenbat aldiz errepikatzen den islatzen du. Adieraz ezazu erantzun OKERRA
- Aldagaiak kategorikoak edo numerikoak izan daitezke
 - Aldagaiak tartetan bilduta egon daitezke
 - Zenbait maiztasun mota daude: absolutua, erlatiboa, absolutu metatua, erlatibo metatua
 - Maiztasun-taulak ez du balio galduer buruzko informaziorik ematen
65. Azken hauteskundeetan boto-emaielen sexuaren eta alderdi politikoaren arteko harremana aztertu nahi da. Zer nolako aldagaia da, eta aukera hautetaik zein teknika estatistiko litzateke egoki?
- Aldagai kategoriko edo kualitatiboak. Analisi bereizle edo diskriminatzailea
 - Aldagai kategoriko edo kualitatiboak. Kontingentzia-taulak
 - Aldagai ordinalak. Osagai nagusizko analisisia
 - Aldagai jarrai edo metrikoak. Erregresio/korrelazio-analisiak
66. Datuen analisi estatistikoan, zer dira datu atipiko edo *outlier* direlakoak (adierazi erantzun zuzena)?
- Banaketaren batezbesteko balioa ez bezalako balioak dira
 - Muturreko balioak dira, banaketaren modarekiko urrunak
 - Datu atipikoek distortsionatu egiten dituzte analisiaren emaitzak, eta, horrexegatik, baztertu beharrekoak dira
 - Gainerako datuen zenbaki-balioetatik urrun kokatzen diren datuak dira, oso desberdinak, kasu arraroak
67. Kaxa-diagrama zenbaki bidezko aldagai baten banaketaren dispersio edo sakabanatzearen eta asimetriaren adierazpen grafikoa da. Zer estatistiko islatzen ditu?
- Student-en T
 - Mediana, minimoa, maximoa, lehen eta hirugarren kuartilak
 - Pearson-en R
 - Batezbestekoa, mediana, moda eta batura
68. Kaxa-diagramaren inguruan, ze test baliatzen da kasu atipikoak atzemateko, eta zein estatistikotan oinarritzen da?
- Dixonen proba baliatzen da, eta balio kritikoa hartzen du oinarri
 - Tukey-ren testa baliatzen da, eta desbiderapen tipikoa heina hartzen du oinarri
 - Tukey-ren testa baliatzen da, eta kuartil arteko heina hartzen du oinarri
 - Grubbs-en proba baliatzen da, eta batezbestekoa hartzen du oinarri

69. Aldagai anitzeko analisi estatistikoa egiteko teknika hauen artean, zein da analisi-unitateak sailkatzeko baliatzen dena?
- Analisi faktoriala
 - Erregresio-analisisa
 - Bariantza-analisisa
 - Cluster analisisa
70. Soziologiaren alorreko ikerketa kuantitatibo asko antzeko test edo neurketa-tresnen erabilera baliatzen dute. Test edo neurketa-tresna horiek bi eskakizun bete behar dituzte: baliozkotasuna eta fidagarritasuna. Definizio hauetatik, zein dagokio testen “fidagarritasun” kontzeptuari?
- Errore sistematikoen ezak baldintzatuko du tresnaren fidagarritasuna
 - Neurketa-tresna jakin bat fidagarria izango da baldin eta ondorengo neurketetan emaitza berdina ematen baditu
 - Fidagarri izateko, testa zer neurtzeko diseinatu den eta huraxe neurtu behar du, eta ez beste ezer
 - Testak fidagarriak dira emaitzen banaketa kurba normalari doitzen zaionean
71. Alderdi hauetatik, zein du berezko Estatistika inferentzialak?
- Datu-murrizketa
 - Laginketa-akatsak
 - Analisi esploratzailea
 - Analisi iragarle edo aurrealea
72. ANOVA bariantza-analisisa aldagai anitzeko teknika bat da, eta honetarako balio du:
- Talde desberdinetako bariantzak konparatzeko
 - Bi talde desberdineko batezbesteko balioak konparatzeko
 - Batezbesteko hiru balore edo gehiago konparatzeko, bariantza berarekin
 - Batezbesteko hiru balore edo gehiago konparatzeko, bariantza desberdinarekin
73. Ikerketa sozial batean, zein fasek BALDINTZATZEN du haren kalitatea?
- Datu-sozialak ekoizteko prozesuak
 - Analisi-teknikek
 - Emaitzen interpretazioak
 - Aurreko guztiek
74. Datuen analisen, nola jokatu “faltako balio”, “erantzunik ez” edo “missing” direlako kasuen aurrean (adierazi erantzun zuzena)?
- Faltako balioen ehuneko handia bada, baztertu egin behar dira analisisitik
 - Holako kasuen ehuneko handia duen aldagai dependenterik egotera, antzeko beste batekin ordezkatzeko da automatikoki
 - Holako kasuen ehuneko handia duen aldagai independenterik egotera, ezin da ordezkatu
 - Automatikoki ordezkatzeko dira, berdin delarik aldagaia dependientea edo independientea den
75. Estatistikan, zer da aldagai *nahastatzaile* bat (adierazi erantzun zuzena)?
- Aldagai metrikoko bat
 - Aldagai kategorikoko bat
 - Erregresio-ekuazioa osatzen duten aldagaiak
 - Azterlan-edo esplorazio-gaia ez den eta emaitzei eragiten dien aldagaia
76. Ikerketaren helburua zein den, aldagai anitzeko teknika estatistikoko bat edo beste hautatuko da. Helburua portaera jakin bat igartzea bada, analisi-teknika hauen artean zeinek balio du iraganeko behaketak azaltzeko zein etorkizuneko portaerak igartzeko?
- Biziraupen-analisisa
 - Erregresio logistikoko analisisa
 - Analisi faktoriala
 - Denbora-serieen analisisa

77. Ikerketaren helburua zein den, aldagai anitzeko teknika estatistiko bat edo beste hautatuko da. Helburua n aldagaien arteko elkarreagin-harremanak atzematea bada, analisi-teknika hauen artean zein da egokia?
- Biziraupen-analisia
 - Analisi bereizle edo diskriminatzailea
 - Osagai nagusizko analisia
 - Korrelazio kanonikoaren analisia
78. Ikerketa jakin batean T-Student proba aplikatu da, eta uko egin zaio hipotesi nuluari. Zer esan nahi du horrek (adierazi erantzun zuzena)?
- Aztertutako aldagaien arteko asoziazioa ausazkoa dela
 - Aztertutako aldagaien arteko asoziazioa estatistikoki esanguratsua dela
 - Ikerketaren hipotesia gaizki planteatu dela
 - Ikerketaren hipotesia ongi planteatu dela
79. Hauek dira estatistika-lagin bat diseinatzerakoan aintzat hartu beharrezko funtsezko bi elementuak (adierazi erantzun zuzena):
- Oinarria (hots, laginaren iturria izango den populazioa), eta laginaren unitateak
 - Laginaren tamaina eta laginketa-errorea
 - Ponderazio-koefizientea eta laginketa-zatia
 - Laginketa-mota eta landa-lanaren koordinazioa
80. Zein da populazioaren lagin adierazgarri baten unitateak hautatzeko oinarrizko printzipioa?
- Populazioaren elementu guztiek hautatua izateko probabilitatea berbera izatea
 - Laginaren tamaina nahikoa izatea
 - Laginketa-errorea % 5etik beherakoa izatea, eta konfiantza-maila % 95etik gorakoa
 - Laginaren unitateak ausaz hautatzea
81. Zer esan nahi du laginaren unitateak kolektibo edo konposatuak izatea, eta ez bakunak?
- Laginaren unitateak zozketa bidez hautatzen direla
 - Laginketa mota geruzatua dela
 - Bi edo lagin gehiago hartzen dituen laginketa mota bat dela
 - Laginaren unitateak taldeak, familiak, ikasgelak direla, eta ez gizabanakoak
82. Adierazi erantzun zuzena, laginketa-zati edo -frakzioari buruz ari garelarik:
- Lagina unibertsoaren baitan zenbat aldiz dagoen adierazten du
 - Laginaren ehunekoa unibertsoarekiko
 - Lagin estratifikatuetan estratu edo geruza bat da
 - Laginaren ehunekoa da, *a priori* diseinatutako lagin teorikoaren gainean
83. Adierazi erantzun zuzena, igoera-koefizienteari buruz ari garelarik:
- Unibertsoa lortzeko lagina igo behar den aldi-kopurua da
 - Laginaren taminaren eta unibertsoaren laginaren arteko zatidura
 - Lagina zenbat aldiz errepikatu behar den adierazten du
 - Erantzunik gabeko kasuetan lagina zenbat aldiz igo behar den adierazten du
84. Informazio estatistikoa eskuratu nahi dugu Gasteizen dauden txikizkako merkataritza establezimenduei buruz, xehetasun-maila udalerritik beherakoa delarik, eta enplegu-kopurua adierazita. Iturri hauen artean, zein da egokiena?
- Udalaren Ekonomia-Jardueren gaineko Zergaren matrikula
 - Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala
 - Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), EUSTAT Euskal Estatistika Erakundearen
 - Enpresen egiturazko estatistika, merkataritza Estatistikako Institutu Nazionala (EIN, INE)

85. *Principles of Economics* liburuan (1890), Marshall-ek gune geografiko jakin batean dauden enpresa-taldeek enpresa handietako ekonomia-mota berberaren onurak eskuratzeko prozesuak jorratu zituen. Zein kontzeptu du hizpide aurreko esaldiak?
- Hiri-sareak
 - Enpresa txiki eta ertainak (ETE)
 - Industria-barrutiak
 - Metropolialdeak
86. Gasteizko Industria Lurra, S.A., GILSA sozietate publikoa funtsezkoa izan da gure hiriaren Tokiko Garapen Ekonomikoaren estrategian. Hautako zein du helburu?
- Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren eta elikagaien eraldaketaren sustapena
 - Gasteizen industria-ekimena eta -inbertsioa sustatzea, hori bultzatzeko lur sail urbanizatuak salduz
 - Etxebizitza publikoen sustapena
 - Gasteizen industria-ikerkuntzari eta -garapenari laguntzea
87. Parke teknologikoak toki-eta eskualde-garapenerako politiken tresnatzat jo ditzakegu. Erakunde hauetatik zein EZ da Arabako Teknologia Parkea S.A. Sozietatearen kide?
- Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A. (SPRI)
 - Teknalia
 - Arabako Foru Aldundia/Araba, Garapen Agentzia
 - Gasteizko Udala
88. Enpresa zentro hauetatik, zein da Gasteizko Udalak tokiko ekonomia sustatzeko politikaren baitan sortutako sarekoa?
- INIZIA enpresa-mintegia
 - Hub Gasteiz
 - Erdi Aroko Hiriguneko Enpresa Zentroa
 - Deba eraikina
89. Arrisku-kapitala edo Hazi-kapitala kontzeptuak tokiko garapenaren alorreko estrategia eta politiken testuinguruan erabiltzen dira, enpresak finantzatzeko zenbait tresna izendatzeko Hazi-kapitaleko zen erakundetan edo erakundeetan hartzen du parte Gasteizko Udalak?
- Luzaro, E.F.C.S.A.
 - Hazibide, S.A.
 - Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa, IKEKS, S.A.
 - Elkargi, S.G.R.
90. Industrialde hauetatik, zein dago Gasteizko udalerrian?
- Arasur
 - Goiaín
 - Arabako Teknologia Parkea
 - Okiturri
91. Tokiko Garapen Ekonomikoaren promozio-tresnen artean Enpresa Zentroak daude, zeinek baldintza egokiak eskaintzen baitzkie enpresa sortu berriei. Badira antzeko beste tresna batzuk, baina enpresa gisa eratu aurretiko faseetan dauden enpresa-proiektuei zuzenduak. Nola deitzen dira?
- Hazi-kapitala
 - Enpresa-sehaskak
 - Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (BIC)
 - Coworking edo elkarlanean aritzeko zentroak

92. Enplegua sustatzeko asmodun zein politika publikori aplikatzen zaio “pisu hil” edo “deadweight” kontzeptua, politika horiek ebaluatzeko prozesuan?
- Enplegua sustatzeko asmoz enpresei emandako laguntza ekonomikoi, non eta ez duten nahitako efektua eragiten
 - Enplegua sustatzeko asmoz enpresei emandako laguntza ekonomikoi, non eta enplegua laguntza horien eraginetik at sortzen edo/eta desagertzen den
 - Enpresei itzuli beharrik gabe emandako laguntza ekonomikoei
 - Enpresei helburu jakin baterako emandako laguntza ekonomikoei
93. Politika publikoen zein ebaluazio-motatan dauka zentzua hipotesi *kontrafaktualak*?
- Inpaktuaren edo emaitzen (outcome) ebaluazioan
 - Diseinuaren edo formaren ebaluazioan
 - Beharren edo programen ebaluazioan
 - Inplementazio edo prozesuaren ebaluazioan
94. Koiunturazko zein eragiketa estatistiko osatzen du edo ditu EUSTATEk merkataritzaren sektorearen inguruan?
- Merkataritza eta konponketaren Inkesta
 - Txikizkako merkataritzaren indizea eta Azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea
 - Kontu ekonomikoak eta Jarduera ekonomikoen direktorioa
 - Kanpo-merkataritzaren indizea
95. Barne Produktu Gordina (BPG) analisi makroekonomikoan erabiltzen ohi den adierazlea da. Elementu hauen artean, zein da BPGren osagaietako bat, eskariaren ikuspegitik?
- Industria-ekoizpena
 - Kontsumo pribatua
 - Soldatapekoen ordainketa
 - Ustiapeneko soberakin gordina
96. Merkatuko prezioetako Barne Produktu Gordina (BPG) produkzio-unitate egoiliarren produkzio-jardueraren azken emaitza da. Honela ere definitu daiteke (adierazi erantzun zuzena):
- Oinarrizko prezioei gehitutako balio erantsi gordina
 - Esportazioen batura, ken inportazioak
 - Ekonomia osoaren ustiapen-kontuko enpleguen batura
 - Zergen batura, ken dirulaguntzak
97. Zertarako balio du egutegi-efektua zuzendu ondorengo indizeak?
- Urte desberdinen artean konparazio homogeenak egin ahal izateko
 - Herrialde, eskualde edo probintzia desberdinak konparatzeko
 - Urte desberdinetako hirurtekoen artean konparazio homogeenak egin ahal izateko
 - Adierazle desestazonalizatuak osatzeko
98. Informazio-iturri hauetatik, zein da Gasteizko enplegu-eskatzaileri buruzko buruzko datuak eskuratzeko egokiena?
- LANBIDE, Euskadiko enplegu zerbitzua
 - Gasteizko Udaleko Azterlan Atala.
 - EUSTAT, Euskal Estatistika Institutua: Jarduerari buruzko inkesta
 - INE, Estatistikako Institutu Nazionala: Biztanleria aktiboaren inkesta
99. EUSTATEk eginiko Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko azken inkestaren arabera, Euskadiko langabezia-tasa % 10,2koa da. Zer esan nahi du horrek (adierazi erantzun zuzena)?
- Adinez nagusien % 10,2 langabezian dagoela
 - Populazio aktiboaren % 10,2 langabezian dagoela
 - Euskadiko biztanleriaren % 10,2 langabezian dagoela
 - Lan egiteko adinean dauden biztanleen arteko % 10,2 langabezian dagoela

100. LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren arabera, 2018aren amaieran Gasteizko enplegu-eskatzaileen kopurua 15.310 pertsonakoa da. Zer esan nahi du horrek (adierazi erantzun zuzena)?
- LANBIDEn Gasteizen bizi eta enplegu-eskatzaile diren 15.310 langabetu daudela erregistratuta
 - Gasteizen 15.310 pertsona daudela enplegurik gabe
 - Gasteizen 15.310 langabe daudela lan egiteko adinean dauden pertsona guztien artetik
 - LANBIDEn langabezia-prestaziodun 15.310 pertsona daudela erregistratuta
101. Adierazi erantzun zuzena, EUSTATen Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestari buruz ari garelarik:
- Biztanleria aktiboaren lagin baten luzetarako inkesta da
 - Ohiko familia-etxebizitzetan bizi diren pertsonen jarduera produktiboari buruzko informazioa biltzen du
 - Autonomia Erkidegoetako informazioa eskaintzen du
 - Urtean behin egiten da
102. Adierazi erantzun zuzena, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestari buruz ari garelarik:
- Euskadiko ohiko eta sasoiko familia-etxebizitzetan bizi diren pertsonen lagin baten luzetarako inkesta da
 - Azterlan jarraitua da, eta haren xedea populazio langabetuari buruzko datuak eskuratzea da
 - Autonomia Erkidegoetako eta probintzietako informazioa eskaintzen du
 - Urtean behin egiten da
103. EUSTATen Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren eta Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren xedea biztanleriaren eta lan-merkatuari buruzko harremani buruzko informazioa eskuratzea da. Baieztapen hauen artean zein da OKERRA?
- Biek EUROSTATEk adierazitako metodologia berbera erabiltzen dute
 - Biek aldi berberetan egiten dute inkesta
 - Biek lagin berbera baliatzen dute
 - Inkestak dira biak, eta emaitzak laginketa-erroreen menpeko estimazioak
104. Adierazi erantzun zuzena EUSTATen lan merkatuaren adierazleen inguruan:
- EAEko lan-merkatuko zenbait alderdiri buruzko adierazle multzoa da
 - Barne hartzen ditu Europako Batzordeko zenbait gailurretan proposatutako adierazleak, eta baita gure Autonomia Erkidegorako interesgarritzat jotako beste egiturazko adierazle batzuk ere
 - Informazioa Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik eta Lan-merkatuaren zentsutik eskuratzen da
 - Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira
105. Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, zeintzuk dira enplegu-egoeraren inguruan biztanleria-multzo guztiak biltzen dituzten segmentuak?
- Landunak eta langabeak
 - Aktiboak eta ez-aktiboak
 - Landunak eta enplegu-eskatzaileak
 - Landunak eta az-aktiboak
106. Nola definitzen du LANBIDEk “iraupen luzeko langabezia”?
- LANBIDEn 18 hilabetetik izena emanda dagoen –eta horietatik 12 enplegu gabe– langabetua
 - Lehendik enplegurik izan ez duen langabetua
 - Inoiz lanik egin ez duen langabetua
 - 45 urteko edo hortik gorako langabetua
107. Eustaten Lan-merkatuaren zentsuan honela sailkatzen dira, lan-kontratu motaren arabera, soldatapeko landunak (adierazi erantzun zuzena):
- Kontratu mugagabea eta aldi baterako kontratua
 - Kontratu jarraitua eta kontratu etena
 - Lanaldi osoko edo zatiko lanaldiko kontratua
 - Kontratu mugagabea, aldi baterako kontratua, kontratu gabeak

108. Zer da Mendekotasun Demografikoko Indizea (adierazi erantzun zuzena):
- Biztanleria ez-aktiboaren eta biztanleria aktiboaren arteko proportzioa da
 - 65 urtetik gorako biztanle-kopuruaren eta biztanleria osoaren arteko proportzioa da
 - Adingabe-kopuruaren eta biztanleria osoaren arteko proportzioa da
 - 16 urtetik beherako eta 65 urtetik gorako biztanle-kopuruaren eta lan egiteko adinean dauden pertsona-kopuruaren arteko proportzioa da.
109. Prestazio ekonomiko hauen artean, zeinek dauka enpleguarekin zerikusirik?
- Diru-sarrerak bermatzeko errenta
 - Gizarte Larrialdiko Laguntzak
 - Gizarteratzeko Errenta Aktiboa
 - Etxebizitzarako Prestazio Osagarria
110. Zer da IPREM edo Efektu Anitzeko Errenten Adierazle Publikoa (adierazi erantzun zuzena):
- Langile bakoitzeko urteko batezbesteko irabazien gaineko ehuneko bat da
 - Laguntzak, dirulaguntzak edo langabezia-subsidioa emateko erreferentziatzko indize bat da
 - Familiaren batezbesteko errentaren adierazlea da
 - Kontribuzio-prestazio bat da
111. 2018ko abenduaren 21eko 1462/2018 Errege Dekretuan finkatzen da 2019rako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata. Zenbatekoa da?
- 900 euro hilean x 14 paga urtean
 - 900 euro hilean x 12 paga urtean
 - 566 eta 900 euro bitartekoa hilean x 14 paga urtean
 - 566 eta 900 euro bitartekoa hilean x 12 paga urtean
112. INEren Soldata Egituraren Inkestaren arabera, adierazle hauetatik zeinek islatzen du soldata-desberdintasuna?
- Soldata-banaketaren 20/80 ratioa
 - Urteko soldata gordinaren urte arteko aldakuntza-tasa
 - Orduko batezbesteko soldata, gizonezko eta emakumeen artean
 - Urteko batezbesteko soldata, jarduera-sektorearen arabera
113. Zein informazio-iturri erabiliko zenuke Gasteizen eta bertako auzoetan bizi diren familien batezbesteko errentaren berri izateko?
- Udal BPG. Kontu ekonomikoak EUSTAT
 - Sektore-kontu sateliteak EUSTAT
 - Pertsonen eta familien errentaren estatistika
 - Gizarte-babesaren kontuak
114. Zer da Gini-ren indizea?
- Urteko soldata gordinaren urte arteko aldakuntza-koefizientea
 - Ugalkortasun-indize sintetiko bat da
 - Banaketen berdintasun edo desberdintasuna adierazteko balio duen neurria da
 - Emankortasun-indize sintetiko bat da
115. Zer ulertzen da "Demokrazia parekide" kontzeptuarekin? Adierazi erantzunik osoena.
- berdintasunezko parte-hartze soziopolitikoak, gizonezko eta emakumeen artean, hauteskunde-prozesuetan eta gobernu-organismoetan
 - "Kremailera-zerrendak" hauteskunde-prozesuetako hautagaitzetan
 - Gizon eta emakumeen presentzia orekatua (60/40) gobernu-organismoetan
 - Parekotasuna hauteskunde-prozesuetako ahaldun eta ikuskatzaileen zerrendetan
116. Zer esan nahi du "estatistikak egiterakoan genero-ikuspegia aintzat hartzea" adierazpenak?
- Estatistika-emaitzak sexuen arabera bananduta ematea
 - Lagin berezituak osatzea, batetik gizonezkoak eta bestetik emakumeak aztertzeke
 - Egungo gizartearen genero-desberdintasunak ikertzea
 - Genero-analisia baliatzea bai informazioa bildu eta ekoiztean, baita hura tratatu eta aurkeztean

117. Sexuaren eta generoaren arteko aldeak analisi estatistikoan (adierazi erantzun OKERRA):
- Generoak gizona eta emakumeen arteko desberdintasun soziokulturalak eta harreman hierarkikoak aipatzen ditu
 - Aldagai parekideak dira, analisi estatistikoan era berean erabili daitezke bata zein bestea
 - Sexua atributu bat da, adina edo jaiolekua bezala, analisisia eragiten duena
 - Informazioaren genero-analisiak genero-desberdintasunak eta -bazterkeriak nola sortzen eta erreproduzitzen diren azaltzen du
118. Zein da kontzeptu honen definizioa: soldata-arrakala
- Soldata-diskriminazioa generoetatik
 - Lanaldi osoan eta lanaldi partzialan diharduten langileen arteko batezbesteko soldataren desberdintasuna
 - Lan berbera, balio ta produktibitate berberarekin egiten duten gizon eta emakumeen diru-sarreraren arteko desberdintasuna
 - Kontratu mugagabea eta aldi baterako kontratua duten langileen arteko orduko batezbesteko soldataren desberdintasuna
119. Zerga Agentziaren arabera, gizon eta emakumeek urtean egiaz jasotzen dituzten soldaten arteko arrakala % 23koa zen 2016an. Zer esan nahi du horrek?
- Emakumeek gizona baino % 23 gutxiago jasotzen dutela urtean
 - Emakumeek gizona baino ordu gutxiago egiten dutela lan, eta horregatik jasotzen dutela gutxiago
 - Emakumeek langileen batez bestekoak baino % 23 gutxiago jasotzen dutela urtean
 - Emakumeek kualifikaziorik gabeko lanpostuak betetzen dituztela, eta horregatik jasotzen dutela gutxiago
120. Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planaren (2018-2021) lau ildo estrategikoetako bat Ekonomia feminista deitzen da, eta pentsamolde horrek honi erreparatzen dio (adierazi erantzun zuzena):
- Errentaren birbanaketa
 - Zainketa-lanen birbanaketa, lan horiek esanahi berriez hornitzea eta balioztatzea
 - Bazterkeria anitza, genero, jatorri edo erlijioetatik
 - Ekonomia kapitalista